

FAMILIA ETA TUTORENTZAKO AHOLKUAK

Zure seme-alabei edo tutoretzapeko adingabeei astialdiko ekintza batean parte hartzeko aukera ematea opari paregabea da. Aisia hezigarriari buruz ari gara eta, ondo pasatzeko bidea emateaz gain, beren garapen pertsonalerako atek zabaltzen dizkiezu.

Haur eta nerabeak izango duten esperientzia hori aisia hezigarriaren eredu pedagogikoarekin lerrotatuta dagoela ziurtatzeko, eta guraso edo tutore moduan dagokizun ardura gauzatzen laguntzeko, saia zaitetz aukeratu nahi duzun jardueren inguruko alderdi garrantzitsu hauek ezagutzen edota informazioa lortzen:

| | |
|---|--|
| 1. Elkartea/entitatea eta bere proiektu pedagogikoa: | <ul style="list-style-type: none"> • <u>Antolatzailea</u>: Jarduera bakoitzaren atzean elkarre edo entitate bat dago. Nor da? • <u>Proiektu pedagogikoa</u>: Zer helburu du? Zein dira oinarriak? Zer balio sustatzen ditu? Adibidez, bizikidetzeta, berdintasuna, aniztasuna, euskara, lankidetzeta... Ohitura osasungarriak (adibidez, elikadura) eta gizarte-trebetasunak zaintzen eta sustatzen ditu? Garrantzitsua da alderdi horiek guztiek zuenekin bat egiten dutela ziurtatzea. |
| 2. Lekua eta instalazioa | <ul style="list-style-type: none"> • <u>Lekua</u>: Jarduera non garatuko da? • <u>Instalazioak</u>: Zer egoeratan daude? |
| 3. Programa | <ul style="list-style-type: none"> • <u>Ekintzen planifikazioa</u>: Udalekuak ekintzen planifikazio bat izan behar dute. Orekatua al da? Jolasak, sormen-tailerrak, naturarako irteerak, gaueko dinamikak... Sor daitezkeen gertaeren aurrean alternatibak kontuan hartzen al ditu? Adibidez, eguraldi txarra badago. |
| 4. Eguneroko alderdi praktikoak | <ul style="list-style-type: none"> • <u>Osasuna</u>: Alergiei edo botiken administrazioari buruzko informazioa biltzen dute? Hurbilen dagoen osasun-zentroarekiko harremanetarako irizpide antolatua dituzte? • <u>Joan-etorriak</u>: Haurrak edo nerabeak leku batetik bestera eramateko, nola antolatzen dira? Haien beharrak kontuan hartzen dituzte? • <u>Barne-araudia</u>: Badute? Edo irizpide garbiak dituzte? • <u>Familia edo tutoreekiko komunikazioa</u>: Familiekin edo tutoreekin komunikatzeko irizpideak eta kanalak argi daude? Telefonoa, posta elektronikoa, web/bloga... |



| | |
|-----------------------------------|--|
| <p>5. Araudia betetzea</p> | <p>Astialdiko jarduerak antolatzean hainbat araudi dira bete edo kontuan hartzekoak, baina bi dira futezkoak. Betetzen al dituzte?</p> <ul style="list-style-type: none"> • 170/1985 Dekretua <ul style="list-style-type: none"> ○ Jarduerako begirale eta zuzendariak berariazko titulazioa izan behar dute. ○ Gomendagarria da gutxieneko bi arduradun egotea (talde txikietan, 10 baino gutxiago) eta gutxieneko kopuru horri batzen zaizkion 15 haur edo nerabe bakoitzeko beste begirale bat egotea ○ Jardueran parte hartuko duten kide guztiak indarrean dauden erantzukizun zibileko eta istripu-aseguruak izan behar dituzte. • LOPIVI + Haur eta Nerabeen Legea <ul style="list-style-type: none"> ○ Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa: Talde tekniko osoak aurkeztu behar du derrigorrez. ○ Indarkeria egoerak prebenitzeko, eta haur eta nerabeak babesteko babes-ordezkarri bat egongo da udalekuetan. Gainera, egoera horietarako jardun-protokoloak garatuko dituzte. |
|-----------------------------------|--|

INFORMAZIOA NON TOPATU:

Datu-base honetan azaltzen diren udalekuek honako hau ziurtatu dute:

- Lege-eskakizunak eta segurtasunekoak betetzen dituztela
- Azaltzen diren datuak egiazkoak direla.

Proiektu pedagogikoa, lekua eta instalazioa, ekintzen proposamena eta eguneroko alderdi praktikoak ezagutzeko, honako bide hauek erabili ditzakezu:

- Elkarte edo erakundearen webgunean
- Harremanetarako zehazten dituzten bideak:
 - Aurrez aurreko arretarako lekura joanda
 - Telefonoa
 - Posta elektronikoa
 - ...

